



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiak Bizkaiko plaza "sozio-sanitarioen" kopurua zabaltearen alde agertu dira

Bilbon, 2014ko zezeilaren 20an.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako batzordeak argi berdea emon deutso gaur goizean Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatu beharreko alkarlanerako hitzarmen barriari. Hitzarmen horren bitartez, lurraldeko egoitzetan eskintzen dan zerbitzu sozio-sanitarioa zabaldu egingo da, 114 lekura heldu arte. Akordioak, 2011ko azaroan erakunde biek sinatutakoa ordezkaturako dau, eta, oinarrian, 14 plaza barri sartuko ditu Txurdinagako (Bilbo) Birjinetxe Laguntza Zentroan, eta Bilboko zentro horretara eroango ditu orain arte Leioako Egoitzan eskintzen ziran 36 plazak. Batzar Nagusiek aurtengorako onartu daben mapea holan dago egituratuta: 27 plaza Zornotzako Orue egoitzan eskiniko dira, beste 27 Aspalduko egoitzan, eta 60 Txurdinagan.

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako diputatu andreak adierazo dauenez, akordio barriak 2014ko ekitaldirako dagozan beharrei erantzuten deutse. Bere berbetan, ingresaturako pertsonen batez besteko egonaldiak “luzatu egiten dira, eta, hori dala eta, pazienteen errotazino txikiagoa dagoanez, plaza gehiago behar doguz”. Aldundiko arduradunaren ustez, eskaintza ekitaldi bakotzeko benetako eskarira egokitu behar da, horreek mantentzea “nahiko garestia” dalako. Dana dala, esan dau Bizkaiak hitzarmen horrek jasoten dituanak baino unidade sozio-sanitario gehiago dituala, Osakidetzaren bitartez eskiniak. Erakundeen arteko akordioa EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen aldeko botoagaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz berretsi da.

Diputatu andreak, lankidetzat hitzarmen horren 2013ko jardueraren balantze laburra egin dau. Hitzarmena 2007an sinatu zan lehen aldiz. Joan dan urtean, programaren barruan dagozan Bizkaiko egoitzek 498 pertsonari emon eutsien arreteta, Bizkaiko ospitaletatik bideratutako pertsonen batez be (kasuen %92). Onuradunen ia erdia 80 urtetik gorakoak ziran, eta batez besteko egonaldia 90 egunekoa izan zan. Pazienteen %58 bere etxera itzuli zan. Pilar Ardanzak esan dauenez, unidade horreen funtzionamenduak “gogobetete maila altua” eskintzen dau.

Batzarretako taldeek plaza kopurua handiagotzea “positiboa” dala esan dabe, baina EH Bilduren eretziz, eskaintza “ez da nahikoa”. Iruñe Soto koalizino abertzalearen bozeroaleak eskaerea egin deutso Aldundiari, Bilbon eskintzen dauen plaza kopurua handiagotu daian, bertan dagoalako eskari handiena. Holan, Bizkaiko uriburuko biztanleak ez litzatekez lurraldeko beste herri batzuetara joan beharko. PP-ko Eduardo Andrésen eretziz, plaza barriak, adinen tarteak zabalduz egin dan aldaketaren ondorioa dira. Eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen ustez, hitzarmenaren aldaketea “beharrezkoa eta egokia” da. Eskaintza eskarira egokitzearen ondorioa da, “erakundeen arteko lankidetzat eredu”, esan dau Jon Larrea batzarkide jeltzaleak.

GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO BITARTEKARI SAREA

EH Bilduk eskatuta, Gizarte Ekintzako diputatuak, 2012an, proba pilotu baten bitartez, bere sailak martxan jarritako Genero Indarkeriaren Kontrako Bitartekari Sarearen balantzea be egin



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dau. Urte horretan, programan gizarte laguntzako 17 eragilek hartu eben parte, eta 2013an beste 15 gehitu jakezan. Une honetan, sareak, 15 alkartetako 32 eragile aktibo ditu. Joan dan urtean, gizarte bitartekari horreek, indarkeria sexistaren biktima ziran 16 emakumeri laguntzea lortu eben.

Bere erantzunean, Ardanzak adierazo dau egitasmo hori aurrera eroateak eskatzen dauen inbertsinoa, erakunde laguntzaileei ordaindutako diru-kopuruetan islatzen dala. 2013an kopuru horreek “8.400 eta 12.500 euro artekoak” izan ziran. 2013. ekitaldian parte hartu eben alkarreak izandako alkarlanean inbertitutako kopuru osoa 55.050 eurokoa izan zan.

Foru arduradunak adierazo dauenez, "Tartekari Sarea", genero indarkeriaren arazoa lantzeko “beste modu bat” bezala jarri zan martxan, genero indarkeriaren biktima ziran emakumeengana hurreratzeko eragile bitartekariaren sarea osatuz Bizkaian “tratu txar egoerak hautemateko, eta babeseke zerbitzu publikoetaraino laguntzeko behar besteko laguntzea emoteko”.

2014 – 2015 epealdirako plangintzari jagokonez, diputatu andreak adierazo dau Foru Aldundiak programea deszentralizetako joereagaz jarraituko dauela, Busturialdera, Durangoaldera eta Arratiara gerturatzeko. Ardanzaren ustez, 2014ko programak hazkunde “garrantzitsua” izan daike, erakundeen zein eragileen aldetik. Hori dala eta, programa horretara bideratutako aurrekontua 180.000 euroraino zabaldu da.

GIZARTEKO BAZTERKERIAREN KONTRAKO BURRUKEA

EH Bildu taldeak egindako itaunei erantzunez, Pilar Ardanzak adierazo dau Aldundiak 38 plaza gehiago bideratuko dituala Bizkaian gizarte bazterkeriarako egoera larrian dagozan eta espezializautako zentro batean ingresetea behar daben pertsoneri arretea eskintzeko. Ganera, Aldundiak beste 57 leku eskiniko ditu eguneko zentroetan, eta laguntzarako programa berezia jarriko dau martxan. Horrez gain, 2 etxebizitza zabalduko ditu 18 urtetik gorako gazteentzat, eta beste etxebizitza bat tratu txarrak jasan dituen emakumeen bazterkeria arriskuko kasuei erantzuteko.

Diputatu andreak adierazo dauenez, eskaintza hori, Foru Aldundiaren eskumenen barruan dagozan “zerbitzu espezializauen” barruan sartu behar da. Horreei, udal mailatik eskintzen diranak gehitu behar jakez. Bizkaiko eskaintza 359 lekukoa izan zan, horreetatik %55 Bilbon eta %14 Barakaldon. EH Bilduko Amaia Agirresaroberen ustez, beharrezkoa da baliabide horreek handitzea, bere taldeak esku artean dituan datuak kontuan izanda, “Bizkaian mila pertsona bizi diralako kalean”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales avalan la ampliación del número de plazas "socio-sanitarias" en Bizkaia

Bilbao, a 20 de febrero de 2014.

La comisión de Acción Social del Parlamento de Bizkaia ha dado luz verde esta mañana al nuevo convenio de colaboración a suscribir entre la Diputación foral y el Gobierno Vasco, que aumenta el servicio socio-sanitario en residencias del Territorio hasta las 114 plazas. El nuevo acuerdo sustituye al firmado en noviembre de 2011 por ambas instituciones y, básicamente, incorpora 14 plazas nuevas en el Centro Asistencial Birjinetxe de Txurdinaga (Bilbao) y traslada a este centro bilbaino 36 plazas que se ofertaban antes en la Residencia de Leioa. El mapa aprobado por las Juntas Generales para este año quedará configurado de la siguiente manera: 27 plazas se ofrecerán en la residencia Orue de Amorebieta, otras 27 en la residencia Aspaldikio y 60 en Txurdinaga.

La diputada de Acción Social, Pilar Ardanza, ha manifestado que el nuevo acuerdo obedece a las necesidades existentes para el ejercicio 2014. Según sus datos, las estancias medias de las personas ingresadas “se alargan, lo que produce que necesitemos más plazas como consecuencia de una rotación menor” de los pacientes. La responsable foral considera que la oferta debe ceñirse a la demanda real en cada ejercicio, ya que el mantenimiento de las mismas es “bastante caro”. Ha advertido, no obstante, que Bizkaia cuenta con más unidades socio-sanitarias que las que recoge este convenio, que son ofrecidas a través de Osakidetza. El acuerdo interinstitucional ha sido ratificado con el voto a favor de PNV, PSE-EE y PP, y la abstención de EH Bildu.

La diputada ha realizado un pequeño balance de actividad de este convenio de cooperación durante el año 2013, cuyo origen se remonta a 2007. El año pasado, las distintas residencias de Bizkaia incluidas en el programa habrían atendido a 498 personas, principalmente derivadas de hospitales de Bizkaia (92% de los casos). Casi la mitad de los beneficiados serían mayores de 80 años y la estancia media alcanzó los 90 días. El 58% de los pacientes volvió a su domicilio habitual. Pilar Ardanza ha celebrado que se mantiene un “alto nivel de satisfacción” con el funcionamiento de estas unidades.

Los grupos junteros han valorado como “positivo” el hecho de que se amplíen las plazas, si bien EH Bildu considera que la oferta “no es suficiente”. La portavoz de la coalición abertzale, Irune Soto, ha pedido a la Diputación que incremente las plazas en Bilbao donde existe una mayor demanda, para evitar así que vecinos de la capital vizcaína tengan que desplazarse a otras localidades del territorio. Eduardo Andrés, del PP, cree que las nuevas plazas obedecen al cambio experimentado en la ampliación del tramo de edades. Y, por su parte, PNV y PSE-EE creen que la modificación del convenio era “necesaria y oportuna”. Es consecuencia de adecuar la oferta a la demanda y es un “ejemplo de colaboración interinstitucional”, ha sostenido el apoderado jeltzale Jon Larrea.

RED DE MEDIACIÓN DE VIOLENCIA DE GÉNERO



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A petición de EH Bildu, la diputada de Acción Social ha hecho balance también de la Red de Mediación de Violencia de Género puesta en marcha por su departamento en el año 2012 a través de una prueba piloto. Durante ese año, en el programa participaron un total de 17 agentes de apoyo social a los que se sumaron durante 2013 otros 15 más. Actualmente la red cuenta con 32 agentes activas de 15 asociaciones diferentes. Durante el pasado año, estas mediadoras sociales consiguieron apoyar y acompañar a 16 mujeres víctimas de violencia sexista.

En su respuesta, Ardanza ha señalado que la inversión que supone el desarrollo de este proyecto se traduce en cantidades abonadas a las entidades colaboradoras. En 2013 oscilaron “entre 8.400 y 12.500 euros”. La cuantía total invertida en concepto de colaboración a las entidades participantes durante el pasado ejercicio fue de 55.050 euros.

La responsable foral ha manifestado que "Tartekari Sarea" se puso en marcha como "otra forma" de abordar la solución al problema de la violencia de género, por medio de la implantación en Bizkaia de una red de agentes mediadoras propiciando un acercamiento a mujeres víctimas de maltrato “para detectar estas situaciones de maltrato y procurar el apoyo suficiente para acompañarlas hasta los servicios públicos de protección”.

Dentro de la planificación para el periodo 2014 - 2015, la diputada ha señalado que la Institución foral continuará con la descentralización del programa con la idea de acercarlo a las comarcas de Busturialdea, Durangoaldea y Arratia. Ardanza cree que para el año 2014 el programa pueda experimentar un incremento “sustancial”, tanto de entidades como de agentes, de ahí que el presupuesto destinado para las entidades colaboradoras haya crecido hasta los 180.000 euros.

LUCHA CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL

En respuesta a preguntas de EH Bildu, Pilar Ardanza ha señalado que, para este año 2014, la Diputación aumentará en 38 las plazas residenciales destinadas a atender a las personas en situación grave de exclusión social en Bizkaia que necesitan de ingreso en un centro especializado. Asimismo, la Diputación ofrecerá otras 57 plazas en centros de día y establecerá un programa de acompañamiento específico, al tiempo que abrirá 2 pisos para jóvenes mayores de 18 años y otro piso para atender casos de riesgo de exclusión de mujeres maltratadas.

La diputada ha advertido de que esta oferta hay que enmarcarla en los “servicios especializados” de competencia foral, a los que habría que sumar los que se ofrecen desde el ámbito municipal. La oferta de Bizkaia se situó en las 359 plazas, de ellas el 55% se ubicaron en Bilbao y un 14% en Barakaldo. Según Amaia Agirresarobe, de EH Bildu, es necesario aumentar estos recursos, ya que, según los datos que maneja su formación, “existen mil personas sin techo en Bizkaia”.

"A PRIMEROS DE JUNIO" SE ABRIRÁ EL CENTRO DE DÍA DE LA PAZ

Por otro lado, según ha informado la diputada de Acción Social, el ayuntamiento de Barakaldo sigue dando los pasos necesarios para abrir el centro de día "La Paz" en el barrio fabril de Cruces, cuya apertura está prevista para “primeros de junio”. Ardanza ha recordado a los grupos junteros que la Diputación aportará 480.000 euros para su gestión y ha anunciado que este



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

mismo lunes su departamento ha recibido la solicitud del municipio de la Margen Izquierda para que se permita la puesta en funcionamiento del centro de cara al inicio del verano.